

## LANDAGRAFIA\_Experientziari buruzko haurnasketa

*Auzoaren ikerketa botanikoa, landare-aniztasunean paseatzeko gonbidapena, Bilbo Zaharrean, San Frantziskon eta Zabalan aurkitutako ustekabeko lorategi bat, natura beti presente dagoela ospatzeko.*

Egoitza hau, Wikiriki 2023-2024 deialdiaren barruan dagoena, landarea oinarri hartuta ikertzeko eta sortzeko aukera bat izan da, tokiko mailan eta maila globalean partekatzen dugun habitataren funtsezko alderdi bat da. Ideia begirada florara abiatzea izan da: zuhaitzei eta landareei, guztiei, hemen bertan daudenetik hasita. Ezagutu, zaindu, hurbil daukaguna baloratu, bizi garen espazioetarako nahi ditugun egiteko moduak arlo ekologikoari zentzu zabalean dagokionez planteatzen zaizkigun erronka zabalenak aitortzeko eta horietan laguntzeko.

### *Zer egin nuen?*

LANDAGRAFIA hiru fasetan garatu da: ereitea, landatzea eta biltzea.

Fase hauen lehenengo parte, **ereitea**, inguruan dauden landare eta zuhaitzen espezieak eta aleak bilatzea eta identifikatzea izan da. Bilaketa hau, pasealeku batzuekin hasten da, bertan landaredi eremuak ezagutzeko helburuarekin. Azkar, hainbat espezie eta ale aurkitzen ditut eta prozesu hau sistematizatzeko premia sortzen da. Premia horri, urte garaia dela eta, nolabaiteko premia gehitzen zaio. Etapa hau urrian hasten da eta espezie hostogalkor batzuk hostoak galtzen hasten dira, beraz, azkar egin behar dut identifikazioa historik gabe askoz zailagoa delako. Puntu honetan, aurkezpenaren testuak *natura beti presente dagoela ospatzeko* esaten duela gogoratzen dut, eta sentidu honetan *beti presente* horri *inoiz ez duela itxaroten* gehitu ahal zaiola pentsatzen dut. Egoera honek natura bere erritmoak eta pautak dituela gogoratzen dit, eta bertan bizi garenok gara moldatu behar garenak.

Publikoari irekitako jarduera gisa, fase honetan *Auzoko landaretatik ibilbidea* antolatu da, inguruan dauden landare-bazter interesgarri batzuk ezagutzeko. Gainera, argazki batzuk egiten ditut *Azpitik Gora*, non behetik gora ikusitako Goiko Auzoen zuhaitzak agertzen dira. Planteamendu honek hiritartasunaren eta naturalaren arteko dikotomia aldatzea bilatzen du. Irudi hauek landarediak babestuta dauden auzoko tokietan kokatzen gaituzte, hirian zuhaitz bakoitzak lurra eta zerua konektatzen duen ardatz bertikal bat dela ulertuz.

**Landatze** fasean, bildutako informazioa antolatzen dut, tokiko zuhaitz eta landareen kokalekuak

jasotzen dituen landaredi-plano baten bidez partekatu ahal izateko. Espezie bakoitza zenbaki batekin seinalatuta dago, identifikatzeko planoaren behealdeko legendan kontsultatu daiteke. Proiektuaren parte honetan aurkitutako zailtasunetako bat sartu beharreko landareen hautaketa izan zen, diseinu eta optimizazio arrazoiengatik, azkenean, 100 espezie aukeratu nituen. Kontuan hartutako irizpideetako bat denboran irauteko probabilitate handiena zutenak nabarmentzea izan zen. Horregatik zuhaitz eta zuhaiska gehiago agertzen dira, landare txikiak baino. Azken hauek, nahiz eta oso ugariak izan eta tokiko hainbat lekutan egon, ebakiak izateko arrisku handiagoa dute edo urtaro-zikloak dituzte. Hala ere, mota honetako landareak bereziki interesatzen zaizkit, eta espezie horien erregistro, azterketa, esku-hartze edo jardueraren bat egiteko asmoa dut uneren batean.

Bigarren aldi honetan, zonako ale batzuk ingurunearekin erlazionatzen dituzten 8 testu labur ere idatzi ditut, begetala gizartearekin eta kulturarekin lotuz. Testu hauek begetalaren behaketatik sortzen diren galdera zabalgoetatik abiatzen dira: nola partekatu habitat bera? Zer da ekosistema orekatua? Nola lagundu zaintzen?... 8 testu labur hauek fanzine txiki batean batuta daude, 1etik 8ra bitarteko zenbakiekin seinalatuta, eta fanzinea zabaltzean agertzen den mapa batean aurkitu ahal dira.

Material hauekin batera, zenbait erabilera proposamen garatu dira landare-proposamen horretara paseotik, deribatik, jolasetik eta gozamenetik hurbiltzeko.

Hirugarren fasean, **biltzea**, helburua hainbat ekintzaren bidez proiektua zabaltzea eta emaitzak partekatzea izan da. Honetako bat landaredi planoak kartel formatuan auzoko hainbat tokitan jartzea izan da, espazio publikoetan zein hainbat establezimenduetan: elkarateak, prestakuntza-zentroak, erakunde publikoak, tailerrak, jatetxeak, tabernak, dendak... Kartelari eta bere edukiari ikusgarritasuna emateaz gain, ideia nagusia kartela jartzen den lekuetan proiektua azaltzea izan da, proiektua modu pertsonalean ezagutarazteko.

Puntu honetan, proiektuaren beste emaitza bat aipatu nahi nuke *Flora of Barrios Altos de Bilbao*, WikiTakes San Frantziskorekin lankidetzan egindakoa, Wikiriki deialdi honetako beste egoitza bat, Mertxu Ramilo Araujo egindakoa. Flora of Barrios Altos inguruneko landareen ale desberdinen argazkiak eta kokalekuak batzeko Wikipediarekin sortutako kategoria da.

Fase hau amaitzean, LANDAGRAFIA erakusteko eta partekatzeko jendaurreko aurkezpena egin da

Wikitokin. Egoitzaren emaitza guztiak -jarduerak eta materialak- Wikitokiren webgunean argitaratu dira eta ikusteko eta deskargatzeko eskuragarri daude. Era berean, prozesua bere iraupen osoan zabaldu da sare sozialetan partekatu diren edukien bidez.

## *Nola izan zen?*

Oro har, egoitzaren garapena oso ona izan dela uste dut. Beste edozein prozesuetan bezala, diseinua egitean kontuan hartu ez nituen zailtasunak sortu dira. Lehen azaldu dudak bezala, hauek batez ere informazioaren antolaketarekin erlazionatuta egon dira, landare premiarekin eta proiektuaren hedapenarekin: espero nituen espezie baino gehiago, emaitzetarako formatu posible gehiago, beste eragile batzuekin lankidetzara... Hala ere, egoitza periodoa bukatu eta gero, zailtasun horiek proiekturako erronkatzat eta posibilitate berri bezala baloratzen ditut.

Zehazkiago, ereite fasearen hasierako inpresioetako bat azaldu nahi nuke; aurkitutako landare espezieen kopurua eta barietatea aurkitzean harritu nintzen. Proiektua planteatu nuenean, inguruko zuhaitzak eta landareak kontuan hartu nituen, baina ez nuen dibertsitatea kontuan hartu proiektua garatzen hasi arte. Hala ere, ia egunero pasatzen naizen lekuetan ezagutzen ez nituen landareak erregistratzean nire *landare itsutasuna* detektatu nuen. *Landare itsutasun* fenomeno honek, jarduera batean parte-hartu zuen pertsona bat sartu zuen, honek landareei atenzio orokorra ez emateagatik sortzen da. Terminoa botanikari eta biologia irakasle J. H. Wandersee eta E. E. Schussler 1999an sortu zuten *Preventing Plant Blindness* argitaratzean. Bertan azaltzen dute nola itsustasun honek gure inguruan dauzkagun landareen ezjakintasun osoa eragiten du. Horrela, LANDAGRAFIArako gako-terminoa dela iruditzen zait, hain zuzen ere gure inguruko flora ikusarazi nahi duelako. Lerro horretan, aipatu nahi dudak beste alde bat begetalean fokua jartzean sortzen den aldaketa da. Identifikatzeko paseetatik bueltatzean agertzen den sentsazioa menditik, basotik edo sorotik etortzen banintz bezala izan da, hiri-bizitzatik orokorrean oharkabekoa den bakarrik aspektu hori ikusten egoteagatik. Espero dut, posible den neurrian, LANDAGRAFIA zabaltzearen bidez pertzepzioaren transformazio hori helaraztea. Honekin batera, azpimarratzekoa da, halaber, proiektuak oso pertsona desberdinen harrera ona jaso duela, norabide honetan lantzerak animatzen nauena. Erantzun honek landare-arlorak hurbiltzeak duen garrantziari buruz pentsatzera eramanez eta, modu batean edo bestean, orain, sozialki ebazteko dagoen gaia dela uste dut.

Bestalde, nahiz eta inguruko flora ezagutzea eta disfrutatzea eraldaketa bat izan, toki batzuetan dagoen landaretza falta totala da. Planoa irakurri eta gero egin ahal den irakurketa ere bada, aspektu honetan hausnarketa bat egitera gonbidatzen gaituena eta hobetzeko beharrezkoak diren posibilitateak erakusten dizkiguna. Hau proiektuak irekitzen duen bidea da eta tokiko beste eragile batzuekin garatzea interesgarria izango litekeela adierazten du.

Lehen esan dudan guztia kontuan hartuta, LANDAGRAFIArekin eman nahi dudan hurrengo urratsak Auzo Goikoetan eta beste leku batzuetan proiektua ekimenekin zabaltzen jarraitzea, partekatze eta jarraitze kolaborazio berriak egitea, eta prozesua beste leku batzuetara esportatzea izango da.

Azkenik, Wikipediaren egindako lana eta lehenengo momentutik aurkitu dudana abegi ona aipatu nahi ditut. Baita formatuen aniztasunari eta diziplinartekotasunari hain irekiak diren irizpideekin planteatutako egoitza ere, horri esker, proiektu hau garatu ahal dudalako. Eta bereziki egoitza honetan izan dudana konpainia eskertu nahi dut, efikazia eta adeitasuna elkartu direlako eta hauek ideiak emateko giro erraza sortu dutelako. Oso ona da halako giroa aurkitzea non, edukieraz eta emaitzez gain, egiteko eta parte-hartzeko moduak oso presente egoten dira.

Eskerrik plantatzen eta zaintzen dutenei.